berrizko UDALA
Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA
BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA
BAO. 99. zk. 2015, maiatzak 27. Asteazkena

# HERRI ORTUAK, BALIZKO EMAKIDADUNEI EXIJITURIKO GUTXIENEKO BALDINTZAK

# HUERTAS MUNICIPALES, CONDICIONES MINIMAS EXIGIDAS A LOS/LAS POSIBLES CONCESIONARIOS/AS

## I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

### 1. ARTIKULUA. XEDEA:

Baldintza-orri hauetan, herri ortuen emakidadunen aukeraketa eraendu behar duten baldintzak ezarri nahi dira.

Udalak baldintza-orri hauen arabera egingo du aukeraketa.

### 2. ARTIKULUA. APLIKAZIO-EREMUA:

Herriko ortuen emakidan interesa duen orori aplikatu behar zaizkio baldintza-orri hauek.

### 3. ARTIKULUA. BETETZEA:

Baldintza-orri hauek nahitaez bete beharko dira udal-titularitateko herri ortuen aprobetxamenduaren emakida eskuratu ahal izateko.

## CAPITULO I: DISPOSICIONES GENERALES

### ARTICULO 1º OBJETO:

El presente pliego de condiciones pretende establecer las condiciones que han de regir la selección de los concesionarios de las huertas municipales.

El Ayuntamiento realizará la selección de conformidad con las condiciones de este pliego.

### ARTICULO 2º AMBITO DE APLICACIÓN:

El pliego de condiciones se aplica a toda persona interesada en la concesión de las huertas municipales.

### ARTICULO 3º CUMPLIMIENTO:

El presente pliego de condiciones será de cumplimiento obligatorio para optar a la concesión de aprovechamiento de las huertas municipales de titularidad municipal.

Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

## II. KAPITULUA: EXIJITURIKO BALDINTZAK.

### 4. ARTIKULUA. ESKAKIZUNAK

1. ADIN NAGUSIKOA izatea edo EMANTZIPATUTA egotea.

2. Udalerrian ERROLDATUTA egotea, baldintza hauek onartu baino 3 urte lehenagotik jarraian, edo aurreko 12 urteetatik gutxienez 10 urtean, betiere esleipenaren aurreko urtean udalerrian erroldatuta egon bada.

   Kadentzia-epealdia egiaztatu beharretik salbuetsita egongo dira genero-indarkeriaren biktimak izatea egiaztatzen duten emakumeak, ekintza positiborako neurri gisa.

   Era berean, baldintza hauek onetsi eta, gehienez jota, bi urte lehenago askatasun pribatutasunaren pena bete duten pertsonek ez dute egiaztatu behar kadentzia-epealdi hori presoen gizarteratzea hobetze aldera.

3. Eskatzaileak egunean izan behar ditu udalarekiko gastuak, hots, ez du udalarekin zorrik izan behar, edota gastuak ordaintzeko legezko erabaki batek egon behar du tartean.

## CAPITULO II: CONDICIONES EXIGIDAS.

### ARTICULO 4º REQUISITOS

1. Ser MAYOR DE EDAD o estar EMANCIPADO.

2. Hallarse EMPADRONADO en el municipio y que lo esté con una antigüedad al menos de 3 años ininterrumpidos anterior a la fecha de la aprobación de estas condiciones, o de al menos de 10 años de los 12 anteriores, siempre que durante el año anterior a la misma haya estado empadronado en el municipio.

   Estarán exentas del deber de acreditación del periodo de cadencia aquellas mujeres que acrediten la condición de víctimas de violencia de género como medida de acción positiva.

   Del mismo modo aquellas personas que hayan cumplido su pena privativa de libertad, en el plazo no superior a los dos años anteriores a la aprobación de estas condiciones, no deberán de acreditar dicho periodo de cadencia en aras de mejorar la integración en la sociedad de los mismos.

3. La persona solicitante deberá de estar al corriente de los gastos con el ayuntamiento, es decir no deberá de tener pagos pendientes con el mismo, y/o deberá de existir un acuerdo lícito de pago de las mismas.

berrizko UDALA

Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

4. Emakidadun bakoitza gehienez ortu baten erabiltzailea izan daiteke.

5. Familia unitate bereko bi kide edo gehiago erabiltzaile edota emakidadun bakartzat joko dira eta, beraz, eskari bat eta gehienez ortu bat izango da familia unitate bakoitzeko.

6. Emakidadunak langile kualifikatuak, Udalaren tutoretzapean, emango duen Hortikultura Ekologikari buruzko prestakuntzara joan behar du.

7. Medikuen baimena

4. Cada persona concesionaria sólo podrá ser usuario de una huerta como máximo.

5. Dos o más miembros de una misma unidad familiar, se considerarán como un mismo usuario/a y/o concesionario/a, por lo tanto, una solicitud y una huerta máxima por unidad familiar.

6. La persona concesionaria deberá asistir a la formación en Horticultura Ecológica impartida por personal cualificado bajo la tutela del Ayuntamiento.

7. Autorización médica

## III. KAPITULUA: DOKUMENTAZIOA

### 5. ARTIKULUA. NORTASUNA EGIAZTATZEA:

Eskatzaileak nortasuna egiaztatzen duen agiri bat aurkeztu behar du nahitaez.

### 6. ARTIKULUA. ERROLDATZEA

Eskakizun horren egiaztapena ofizioz egiaztatuko da, eta etenik gabekoa izan behar du ortuak erabiltzeko emakidak iraun bitartean.

## CAPITULO III: DOCUMENTACIÓN

### ARTICULO 5º ACREDITACIÓN DE LA PERSONALIDAD:

La persona solicitante deberá de presentar un documento que acredite su personalidad.

### ARTICULO 6º EMPADRONAMIENTO

La acreditación de este requisito se comprobará de oficio y deberá mantenerse ininterrumpido mientras dure la concesión de uso de las huertas.

Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

**7. ARTIKULUA. LEHENTASUNEZKO TALDEKOA IZATEA**

Lehentasunezko eskubidearen esleipendunek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

1. NAN agiria.
2. Instalazio hauek erabiltzeko behar den jarduera fisikoa egiteko gaitasuna duela egiaztatzen duen medikuaren ziurtagiria.
3. GIZARTEAN BAZTERTUTA EDO ARRISKU HORRETAN egotea egiaztatzeko, oinarrizko gizarte-zerbitzuen edo espezializatuen txostena aurkeztu behar da.

   Gizartean baztertuta edo arrisku horretan dauden pertsonak, Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea kontuan izanik (2008ko abenduaren 31ko EHAA, asteazkena, 250. alea.).
4. LANGABEZIAN egotea egiaztatzeko, LANBIDEko Agiria, langabezian egoteari buruzko eskabidearen datakoa.
5. JUBILAZIOA egiaztatzeko, jubilatuaren egiaztagiria.

**ARTICULO 7º PERTENENCIA A GRUPO PRIORITARIO**

Las personas adjudicatarias del derecho preferente deberán aportar la siguiente documentación:

1. Documento Nacional de Identidad.
2. Certificado médico en el que se acredita la capacidad para ejercer la actividad física que requiere la utilización de dichas instalaciones.
3. Para acreditar la SITUACIÓN O RIESGO DE EXCLUSIÓN SOCIAL mediante la presentación de Informe de los servicios sociales de base o especializados.

   Aquellas Personas que se encuentren en situación o riesgo de exclusión social teniendo en cuenta la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social (BOPV miércoles 31 de diciembre del 2008, nº 250).
4. Para acreditar estado PARO, Documento de LANBIDE a fecha de solicitud de estado desempleado.
5. Para acreditar JUBILACION, Documento acreditativo de jubilado.

berrizko UDALA

Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

6. PENTSIODUNA egiaztatzeko: Pentsiodunak edo edozein beka, prestazio edo subsidioren hartzaileak direnean (Gizarte Ongizatearen laguntzak barne), prestazioaren egiaztagiria, ekitaldi horri dagokiona.

7. EZGAITASUNA egiaztatzeko, mugikortasun murriztu iraunkorreko ezgaitasuna izateari buruzko egiaztagiria aurkeztuko da, organo eskudunak emandakoa.

8. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMAK izatea egiaztatzeko: Hori egiaztatzeko, honako bide hauetako batetik joko da:

   - Genero-indarkeriaren gertaerak izatea egiaztatzen duen epailearen epaia.
   - Biktima babesteko emandako agindua.

   Emakidaren lehentasunezko eskubidearen interesatuaren eskabidearen aurreko bi urtean emandakoak izan behar dute epaiak eta babesa emateko aginduak.
   Halaber, oinarrizko gizarte-zerbitzuen edo zerbitzu espezializatuen txostena aurkeztuta egiaztatu ahal izango da; genero-indarkeriaren gertaerak izatea egiaztatzen dute zerbitzuok.

6. Para acreditar PENSIONISTA. En el caso de pensionistas o perceptores/as de cualquier beca, prestación o subsidio (incluidas las ayudas de Bienestar Social), el certificado de las mismas, correspondiente a dicho ejercicio.

7. Para acreditar la DISCAPACIDAD se aportara Certificación acreditativa de la condición y carácter de la discapacidad de movilidad reducida permanente expedida por el organismo correspondiente.

8. Para acreditar la condición de VICTIMAS DE VIOLENCIA DE GÉNERO: Tal condición se acreditará por alguno de los siguientes medios:

   - Sentencia judicial acreditativa de la existencia de episodios de violencia de género.
   - Orden de protección dictada a favor de la víctima.

   Tanto la Sentencia como la orden de protección tendrán que haber recaído en los dos años inmediatamente anteriores a la solicitud de la interesada del derecho preferente de concesión.
   Asimismo, podrá acreditarse mediante la presentación de Informe de los servicios sociales de base o especializados que certifiquen la existencia de episodios de violencia de género.

berrizko UDALA

Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

Baldin eta baldintzetakoren bat nahikoa egiaztatu ez dela irizten bazaio, hori egiaztatzeko beharrezko dokumentazioa eska dezake udalak; emakidaren ondoren ere egin daiteke hala.

En los casos en que no se considere suficientemente acreditado alguno de los requisitos, podrá solicitarse por parte del Ayuntamiento la documentación que sea necesaria para su acreditación, incluso con posterioridad a la concesión.

Esleituriko datuetako bat edo aurkezturiko dokumentazioa egiazkoa ez bada, berehala baztertuko da prozeduratik, baina aurretik entzunaldia eman behar zaio interesatuari.

La falsedad de alguno de los datos consignados o la documentación presentada, sería causa inmediata de exclusión del procedimiento, previa audiencia del interesado.

## IV. KAPITULUA: ESLEIPEN-PROZEDURA

## CAPITULO IV: PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

### 8. ARTIKULUA. ESKABIDEAK

### ARTICULO 8º SOLICITUDES

1. Udalak emakidaren xedeko ortuak esleitzeko prozedurari ekingo dio, esleipen-prozedura hasiko duen Alkatetza Dekretua iragarki-oholtzan eta udalaren web orrian argitaratutakoan.
2. Aukeraketan parte hartzeko, eskabidea (Eranskina) bete beharko da, baita eskaturiko dokumentuak gehitu ere.

15 eguneko epea dago eskabideak aurkezteko, prozedurari hasiera emango dion ebazpenetik aurrera zenbatzen hasita.

1. El Ayuntamiento iniciará el procedimiento de adjudicación de las huertas objeto de la concesión, a partir de la publicación en el Tablón de Anuncios y en la página Web del Ayuntamiento del Decreto de Alcaldía que dé inicio al procedimiento de adjudicación.
2. Para tomar parte en la selección, se deberá cumplimentar la solicitud correspondiente (Anexo), así como adjuntar los documentos requeridos.

El plazo de presentación de solicitudes será de 15 días a partir de la Resolución que dé inicio al procedimiento.

berrizko UDALA

Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

**9. ARTIKULUA. AUKERAKETA- ETA ESLEIPEN-IRIZPIDEAK**

Honako baldintza-orri hauetan, behartsuenentzako aisialdirako ortuen emakida lehenesten duten esleipen-irizpideak ezarri dira.

Hala, baztertuta edo baztertuta izateko arriskuan daudenek, langabetuek, jubilatuek, pentsiodunek, elbarriek, genero-indarkeriaren biktimek... lehentasuna izango dute esleipenean. Hala eta guztiz ere, gutxieneko partzela kopurua gordeko zaio gizarte-talde bakoitzari, baldintza-orri hauetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta horietako guzti-guztien presentzia bermatuko da baldintza-orri hauetan xedatu dena betetzen duten balizko eskatzaileak badaude.

1. Lehentasunen eskema baten arabera banatuko dira partzelak. Hala ere, gutxieneko partzela kopurua gordeko zaio gizarte-talde bakoitzari:
   a) Gizarte-bazterketa: 9 partzela
   b) Langabetuak: 12 partzela
   c) Jubilatuak eta pentsionistak: 12 partzela
   d) Ezinduak: Partzela 1
   e) Beste batzuk: 9 partzela
   f) Udalak lursaila alokairuan hartu aurretik lursailaren erabiltzaile izan direnentzako erreserba: 2

**ARTICULO 9º. CRITERIOS DE SELECCIÓN Y ADJUDICACIÓN**

En el presente pliego de condiciones se establecen los criterios de adjudicación que priorizan la concesión de las huertas municipales a los grupos más necesitados.

Así, los grupos en situación o riesgo de exclusión, parados, jubilados, pensionistas, minusválidos, víctimas de violencia de género…, tendrán preferencia en la adjudicación. A pesar de ello, se reservarán un mínimo de parcelas de acuerdo a lo establecido en el presente pliego a cada uno de los grupos sociales, garantizando la presencia de todos y cada una de ellos en caso de existir solicitantes potenciales que cumplan lo establecido en el presente pliego.

1. El reparto de las parcelas se realizará de acuerdo a un esquema de prioridades. A pesar de ello, cada grupo social tendrá reservado un mínimo de parcelas:
   a) Exclusión social: 9 parcelas
   b) Parados: 12 parcelas
   c) Jubilados y pensionistas: 12 parcelas
   d) Discapacitados: 1 parcela
   e) Otros: 9 parcelas
   f) Reserva para personas que han sido usuarias de la parcela con anterioridad al arrendamiento de la misma por parte del Ayuntamiento: 2

Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

2. Gizarte-talde bakoitzean genero bakoitzarentzako gutxieneko %30eko portzentajea bermatuta egingo da generoen araberako banaketa.

3. Zozketa publikoaren bidez esleitu eta banatuko dira partzelak 1. atalean ezarritako talde bakoitzaren barrukoak diren eta onartuta dauden eskatzaileen artean, eta partzela bakarra esleituko zaio eskatzaile bakoitzari, hura landu dezan.

   Partzela erabilgarriak baino onartutako eskatzaile gehiago baleude, izangaien poltsa bat sortuko litzateke zozketaren ordena berean.

   Partzela esleitutakoan, erabiltzaileak kontratua izenpetuko du eta erabilera eta funtzionamendu arauak bete beharko ditu nahitaez; horiek guztiak udalaren eta emakidaren arteko kontratuko dokumentuan zehazten dira.

4. Baldin eta 1. atalean ezarritako irizpidearen araberako partzela banaketa egin ondoren hartu gabeko zenbait partzela badaude, proportzioan banatuko dira partzelok sortutako talde bakoitzaren guztizkoarekiko portzentajeak aintzat hartuta.

2. El reparto por género se realizará garantizando un porcentaje mínimo del 30% para cada género en cada grupo social.

3. La adjudicación y distribución de las parcelas se hará por sorteo público entre los/las solicitantes que se integren en cada uno de los grupos establecidos en el apartado 1º, que resulten admitidos, adjudicándose una única parcela a cada persona solicitante para su cultivo.

   En caso de que hubiera más solicitantes admitidas que parcelas disponibles, se creará una bolsa de aspirantes en el orden que resultase del sorteo.

   Una vez adjudicada la parcela, el usuario firmará el correspondiente contrato obligándose al cumplimiento de las normas de uso y funcionamiento que se detallan en documento contractual entre ayuntamiento y concesionario.

4. En caso de que una vez realizado el reparto de parcelas de acuerdo al criterio establecido en el apartado 1º, haya algunas parcelas no ocupadas, las mismas se repartirán de forma proporcional considerando los porcentajes respecto al total de cada uno de los grupos generados.

Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

**Eredua** 09
Modelo

## Herri ortuen eskabidea
Solicitud de huertos municipales

Tel.: 946 824 036 / 946 824 584 - udala@berriz.org - www.berriz.org

☐ **ONARTUTA / CONCEDIDA** ______ ☐ a) ☐ b) ☐ c) ☐ d) ☐ e) ☐ f)
☐ **UKATUTA / DENEGADA**

### ESKATZAILEA - SOLICITANTE

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. abizena *Apellido 1* | | 2. abizena *Apellido 2* | | | | | |
| Izena *Nombre* | | NAN *DNI/NIE/CIF* | | | | | |
| Kalea *Calle* | | Zenbakia *Número* | | Solairua *Piso* | | Atea *Mano* | |
| Posta-kodea *Código Postal* | | Herria *Población* | | Telefonoa *Teléfono* | | | |
| Mugikorra *Móvil* | | Posta elektronikoa *Correo electrónico* | | | | | |

**Udal ortu aprobetxamendua hautatu nahi dut:** (adierazi X batekin erantzuna)

**Deseo optar a la concesión de aprovechamiento de los huertos municipales, del tipo:** (marque con una X la respuesta)

☐ Gizarte-bazterketa / Exclusión social
☐ Langabetuak / Parados
☐ Jubilatuak eta pentsionistak / Jubilados/as y pensionistas
☐ Ezinduak / Discpacitados
☐ Beste batzuk / Otros

### AURKEZTEN DEN DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

Aurkezten duzuna X bateaz markatu / Marque con una X la que presente:

| | | |
|---|---|---|
| NAN edo txartela | ☐ | DNI o tarjeta identificativa |
| Ortu instalazioa erabiltzeko gaitasuna duela egiaztatzen duen medikuaren ziurtagiria | ☐ | Certificado médico en el que se acredita la capacidad para hacer uso de una instalación de huerto |

Eskatzen den udal ortu motaren arabera / Según tipo de huerto que se solicita:

| | | |
|---|---|---|
| **Gizartean baztertuta** edo arrisku horretan egotearen egiaztagiria | ☐ | Documento acreditativo de situación o riesgo de **exclusión social** |
| **Langabezian** egotearen egiaztagiria | ☐ | Documento acreditativo de estar **parado** |
| **Jubilatuaren** egiaztagiria | ☐ | Documento acreditativo de estar **jubilado/a** |
| **Pentsioduna** izatearen egiaztagiria | ☐ | Documento acreditativo de ser **pensionista** |
| **Ezgaitasunaren** egiaztagiria | ☐ | Documento acreditativo de **discapacidad** |
| **Genero-indarkeriaren biktimak** izatearen egiaztagiria | ☐ | Documento acreditativo de la condición de **víctimas de violencia de género** |

Herri ortuen adjudikatzailea izatekotan, langile kualifikatuak, Udalaren tutoretzapena, emando duen Hortikultura Ekologikoari buruzko prestakuntzara joateko konpromisoa hartzen dut.

En caso de ser adjudicatario/a de una huerta municipal me comprometo a asistir a la formación de Horticultura Ecológico impartida por personal cualificado bajo la tutela del Ayuntamiento.

Tokia eta eguna / Lugar y fecha

Sinadura / Firma

LEGEZKO OHARRA

Eman dizkiguzun datu pertsonalak Berrizko Udalaren ardurapeko fitxategian landu eta sartuko dira. Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoaren arabera, datuak eskuratu, zuzendu, ezeztu eta horiei aurka egiteko eskubideak erabili ahalko dituzula jakinarazi nahi dizugu. Horretarako, hona jo beharko duzu: Iturritza 51, 48240 Berriz (Bizkaia).

AVISO LEGAL

Los datos de carácter personal que nos ha proporcionado serán tratados e incorporados en un Fichero responsabilidad del Ayuntamiento de Berriz. Conforme a lo dispuesto en los artículos 15 y 16 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos que puede ejecutar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en: Iturritza 51, 48240 Berriz (Bizkaia).

Inprimatu | Garbitu

Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

Lehentasunezko eskubidearen esleipendunek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

1. Nortasun Agiri Nazionala.

2. Instalazio hauek erabiltzeko behar den jarduera fisikoa egiteko gaitasuna duela egiaztatzen duen medikuaren ziurtagiria.

3. GIZARTEAN BAZTERTUTA EDO ARRISKU HORRETAN egotea egiaztatzeko, oinarrizko gizarte-zerbitzuen edo espezializatuen txostena aurkeztu behar da.

Gizartean baztertuta edo arrisku horretan dauden pertsonak, Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea kontuan izanik (2008ko abenduaren 31ko EHAA, asteazkena, 250. alea.).

4. LANGABEZIAN egotea egiaztatzeko, LANBIDEko Agiria, langabezian egoteari buruzko eskabidearen datakoa.

5. JUBILAZIOA egiaztatzeko, jubilatuaren egiaztagiria.

6. PENTSIODUNA egiaztatzeko: Pentsiodunak edo edozein beka, prestazio edo subsidioren hartzaileak direnean (Gizarte Ongizatearen laguntzak barne), prestazioaren egiaztagiria, ekitaldi horri dagokiona.

7. EZGAITASUNA egiaztatzeko, mugikortasun murriztu iraunkorreko ezgaitasuna izateari buruzko egiaztagiria aurkeztuko da, organo eskudunak emandakoa.

8. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMAK izatea egiaztatzeko: Hori egiaztatzeko, honako bide hauetako batetik joko da:

- Genero-indarkeriaren gertaerak izatea egiaztatzen duen epailearen epaia.

- Biktima babesteko emandako agindua.

Emakidaren lehentasunezko eskubidearen interesatuaren eskabidearen aurreko bi urtean emandakoak izan behar dute epaiak eta babesa emateko aginduak.
Halaber, oinarrizko gizarte-zerbitzuen edo zerbitzu espezializatuen txostena aurkeztuta egiaztatu ahal izango da; genero-indarkeriaren gertaerak izatea egiaztatzen dute zerbitzuok.

Las personas adjudicatarias del derecho preferente deberán aportar la siguiente documentación:

1. Documento Nacional de Identidad.

2. Certificado médico en el que se acredita la capacidad para ejercer la actividad física que requiere la utilización de dichas instalaciones.

3. Para acreditar la SITUACIÓN O RIESGO DE EXCLUSIÓN SOCIAL mediante la presentación de Informe de los servicios sociales de base o especializados.

Aquellas Personas que se encuentren en situación o riesgo de exclusión social teniendo en cuenta la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social (BOPV miércoles 31 de diciembre del 2008, nº 250).

4. Para acreditar estado PARO, Documento de LANBIDE a fecha de solicitud de estado desempleado.

5. Para acreditar JUBILACION, Documento acreditativo de jubilado.

6. Para acreditar PENSIONISTA. En el caso de pensionistas o perceptores/as de cualquier beca, prestación o subsidio (incluidas las ayudas de Bienestar Social), el certificado de las mismas, correspondiente a dicho ejercicio.

7. Para acreditar la DISCAPACIDAD se aportara Certificación acreditativa de la condición y carácter de la discapacidad de movilidad reducida permanente expedida por el organismo correspondiente.

8. Para acreditar la condición de VICTIMAS DE VIOLENCIA DE GÉNERO: Tal condición se acreditará por alguno de los siguientes medios:

- Sentencia judicial acreditativa de la existencia de episodios de violencia de género.

- Orden de protección dictada a favor de la víctima.

Tanto la Sentencia como la orden de protección tendrán que haber recaido en los dos años inmediatamente anteriores a la solicitud de la interesada del derecho preferente de concesión.
Asimismo, podrá acreditarse mediante la presentación de Informe de los servicios sociales de base o especializados que certifiquen la existencia de episodios de violencia de género.